

Administrazioko zentroen % 44k eta enplegatu publikoen % 11,6k telelana egin du, 2021ean, Euskal AEn

Ekipamenduen eskuragarritasun eta informazioaren teknologien erabilera handiagoa administrazioan enpresetan baino

Administrazio publikoko zentroen % 44k langileak ditu telelanean 2021ean, Eustaten datuen arabera. Enplegatu publikoen % 11,6k, 2021ean, bere lan-zentrotik kanpo egin du lan, gutxienez lanaldiaren heren bat, eta, horretarako, sare telematikoak erabili ditu konektatzeko, IKT sistemen bidez; beraz, telelangiletzat jo daitezke.

Gainera, enplegatu publikoen % 93,7k, batez beste, IKT (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) sistemak erabiltzen dituzte, eta egiaztatzen da % 7,4 IKT sistemetako langile espezialistak direla. Era berean, langile horien ia heren batek (% 32,8) urrutiko konexioa du, erabilera profesionalerako gailu eramangarri baten bidez.

Bestalde, administrazioan zentroen tamainak ez du nabarmentzeko moduko alderik eragiten IKT teknologiak erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoan.

Langile horiek sexuaren eta lurraldearen arabera aztertzean, nabarmendu behar da, IKT sistemetako espezialisten kasuan izan ezik –bertan gizonen ehunekoa, % 60,9, emakumeena, % 39,1, baino handiagoa da–, aipatutako gainerako kategorietan ehunekoa % 60 ingurukoa dela emakumeetan eta % 40koa gizonetan. Hala ere, sexuaren eta jardueradarren arabera, alde handiagoak ikusten dira.

Administrazio publikoaren enplegatuak IKTei dagokienez, lurralde historikoaren eta jardueradarren arabera (%). 2021

	IKT erabiltzaileak			IKT espezialistak			Enplegatuak urruneko konexioarekin			Telelangileak		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Euskal AE	93,7	60,6	39,4	7,4	39,1	60,9	32,8	59,1	40,9	11,6	63,8	36,2
Araba/Álava	88,8	61,3	38,7	7,2	40,9	59,1	27,8	58,8	41,2	8,3	64,2	35,8
Bizkaia	96,3	59,9	40,1	6,8	37,8	62,2	38,2	59,5	40,5	13,5	62,5	37,5
Gipuzkoa	92,7	61,1	38,9	8,6	40,2	59,8	27,3	58,7	41,3	10,7	65,6	34,4
Jardueradarra												
Herri Administrazioa eta defentsa	94,8	48,1	51,9	5,0	38,5	61,5	28,1	46,7	53,3	16,5	57,8	42,2
Hezkuntza	99,1	63,5	36,5	11,2	40,6	59,4	53,9	61,8	38,2	5,4	53,7	46,3
Osasun jarduerak	96,5	79,6	20,4	2,6	44,0	56,0	16,6	79,3	20,7	5,8	79,6	20,4
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	85,6	61,0	39,0	7,7	37,7	62,3	34,7	57,4	42,6	9,9	54,0	46,0
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	83,0	42,7	57,3	17,7	27,1	72,9	45,2	39,9	60,1	23,4	45,9	54,1

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

Administrazio publikoko zentroen ikuspegitik, ia guztietan –% 99,7–, langileak IKT sistemen erabiltzaile dira. Gainera, haietatik, % 65,9k IKT sistemetako espezialistak dituzte, % 80,3k lan-zentroetara urrutiko sarbidea duten enplegatuak dituzte eta, aurretik esan dugunez, % 44,0k langileak dituzte telelana egiten.

4.0 industriaren adierazleak administrazio publikoko zentroetan

Administrazioaren eraldaketa digitala dela eta, sare sozialak dira (enpresa-xedeetarako erabiltzen dituzten zentroen % 83,0) aztertu diren bederatzi adierazleetakoa nabarmenena. Bigarrenik, zibersegurtasuneko jarduerak (% 61,7). Jarraian, honako hauek: zerbitzu mugikorak (% 45,8; zerbitzu mugikortzat jotzen da jarduerarekin zerikusia duten aplikazioak erabiltzea) eta lainoko informatikako zerbitzuak (Cloud Computing), ostatatze horrengatik ordaintzen duten zentroen % 41,7 dutela; horrek aukera ematen die informazioa edo

zerbitzuak eskuratzeko, Interneteko konexioaren bidez, edonon dagoen edozein gailu mugikorretik edo finkotik.

Erabilera gutxiago dute, % 6 eta % 35 bitarteko ehunekoekin, Gauzen Internetak eta makrodatuen analisiak (Big Data), % 34,7 kasu bietan, bai eta honako hauek ere: adimen artifizialeko sistemen erabilerak (% 16,0), 3D inprimagailuak (% 9,0) eta robotika (% 6,2).

Euskal AEko enpresen % 92,1ek izapide elektronikoak egiten dituzte administrazio publikoarekin


Euskal AEko enpresek e-administrazioaren inguruan egiten duten erabilera dela eta, haietako % 92,1ek izapide elektronikoak egiten dituzte administrazio publikoarekin, 2021etik. Izapidetze hori zuzenean egin daiteke, edo hirugarrenen bidez (aholkulariak...) edo bi prozeduren bidez. Hala, enpresen % 51,9k izapideren bat egin dute zuzenean eta % 73,0ek, hirugarrenen bidez.

10 enplegatuko eta gehiagokoen kasuan, establezimenduen % 95,9k egin dute izapide elektronikoren bat. Enpresa horiek, handiagoak izanik baliabide gehiago dituztenez, izapide horiek zuzenean egiten dituzte nagusiki (% 83,1), eta ehuneko hori txikiagoa da (% 55,2) hirugarrenen bidez egiten dutenetan.

Egiten dituzten izapide elektroniko nagusiek honako helburu hauek dituzte: zenbait informazio mota lortzea (% 69,5), inprimaki eta formularioak eskuratzea (% 67,2) eta inprimaki eta formularioak beteta bueltatzea (% 58,0). Bide hori ere asko erabiltzen da enplegatuen gizarte-kotizazioak aitortu (% 65,6) eta zenbait zerga-mota betetzeko: nagusiki BEZa (% 78,1) eta sozietateen gainekoa (% 57,3).

Izapide horiek Euskal AEko enpresek zer administraziorekin egiten dituzten elektronikoki galdetzean, foru-aldundiak (% 83,8) eta administrazio zentrala (% 71,6) nabarmendu behar dira; ehuneko horietan zerga nagusien gainean bi administrazioek dituzten eskumenek dute eragina. Jarraian, Eusko Jaurlaritza dago (% 59,1), gero toki-erakundeak (% 32,1) eta, azkenik, Europar Batasuna eta beste batzuk (% 8,3).

Administrazio publikoarekiko izapideak era elektronikoan egiten dituzten euskal enpresak 2021ean. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

10 enplegatuko eta gehiagoko enpresen kasuan, nabarmen murriztu da Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien edo administrazio orokorraren arteko distantzia (% 78,6, % 85,8 eta % 84,8, hurrenez hurren). Halaber, nabarmen egin du gora toki-erakundeekin eta Europar Batasunarekin eta beste batzuekin e-administrazioa baliatzen duen enpresa-proporzioak (% 49,2 eta % 20,9, hurrenez hurren).

Ekipamenduen eskuragarritasun eta informazioaren teknologien erabilera handiagoa administrazioan enpresetan baino

Administrazio publikoko zentroen % 99,5ek beren web-orria dute edo dagokion erakundearena, 2021ean. 10 enplegatuko eta gehiagoko zentroen kasuan, proportzio hori are handiagoa da, % 99,9koa.

Era berean, Euskal AEko administrazio publikoko ia zentro guztiek baliatzen dituzte 2021ean IKTen oinarritzko ekipamenduak. Web-orriaz gainera, zentro publikoen % 99,7k dituzte ordenagailua eta Interneteko konexioa, eta % 99,4k, posta elektronikoa. Bestalde, telefono mugikorra da finkapen gutxien duen IKT ekipamendua; zentro publikoen % 85,0ek daukate.

Enpresen sektorearekin alderatuta, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) sartzeko ehunekoak handiagoak dira administrazio publikoen zentroetan. Web-orriari dagokionez, aldea ehuneko 46,5 puntukoa da, administrazioaren alde (% 53,0koa enpresen sektorean). Hala ere, telefono mugikorreko ekipamendua ohikoagoa da enpresen sektorean (% 94,9), administrazio publikoaren sektoreko zentroetan baino (% 85,0).

2021ean IKT ekipamenduak erabiltzen dituzten enplegatu publikoen proportzioa ere oso handia da: langile publikoen % 90,4k ordenagailua erabiltzen dute, % 92,3k helbide elektronikoa dute eta % 87,4k Interneterako sarbidea dute. Enpresen sektorean, langileen erabilerari dagozkion ehuneko horiek txikiagoak dira, zehazki: % 72,4, % 67,9 eta % 67,9, hurrenez hurren.

IKT ekipamenduak eta erabilera-maila Euskal AEko administrazio publikoko establezimenduetan. 2021

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet		Telefono mugikor	Web-orria
	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	establ. %
Guztira	99,7	90,4	99,4	92,3	99,7	87,4	85,0	99,5
Herri Administrazioa eta defentsa	100	90,8	99,7	93,6	100	87,0	85,1	99,5
Hezkuntza	100	98,7	100	98,6	100	98,6	63,3	100
Osasun jarduerak	100	92,9	100	97,3	100	91,3	100	100
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	99,2	80,2	98,4	80,2	99,2	70,8	94,7	100
Administrazioaren beste jarduera batzuk	99,4	79,3	98,7	77,9	99,4	75,1	97,4	97,9

Iturria: Eustat. Encuesta sobre la sociedad de la información -ESI- Administración

Esan behar da ekipamenduei eta langileen aldetiko erabilerari dagozkien ehuneko handi horiek dagokien enplegu-maila gorabehera erregistratzen direla; beraz, administrazio publikoan ez du ia eraginik zentroen tamainak.

Gainera, ia zentro guztiek, % 99,5ek, segurtasun informatikoko neurriren bat hartzen dute; bereziki, software eguneratura jo ohi dute (% 98,7), bai eta pasahitz seguruak (% 98,1) eta kanpoko Backup-ak (% 89,7) jartzera ere.

Konexioa duten zentroetan Internetera sartzeko modua dela eta, ia guztiek egiten dute konexio finkoen bidez (% 99,9), eta % 74,3k, gainera, konexio mugikorren bat ere badute. Lehenengoan artean, zuntz optikoa nabarmendu behar da (kablea, FTTH...), % 91,4an; lau urtean soilik, ehuneko 12,5 puntuko igoera izan du (2017an, % 78,9).

Aurretik esan bezala, Euskal AEko administrazio publikoak garrantzi handia ematen dio Interneten web-orriaren bidez presentzia izateari; hala ondorioztatzen da web-orria duten

zentroen ehuneko altutik (% 99,5), eta ehuneko hori % 99,9koa da, 10 enplegatuko eta gehiagoko zentroetan. Enpresen sektorearen kasuan, % 53,0koa da, establezimendu guztien kasuan, eta % 92,5koa, 10 enplegatuko eta gehiagoko enpresen kasuan.

Web-orri horietan, erakundearen beraren informazio orokorra aurki daiteke, kasuen % 100ean; produktuen katalogoa edo prezioen zerrenda, % 68,6an, edo baliabide sozialetako profiletarako estekak, % 66,9an, besteak beste. Enpresen sektorea dela eta, administrazioak garrantzi handiagoa ematen dio enplegu-eskaintzei buruzko informazio-webeko presentziari (% 61,7, eta enpresetan % 27,9) eta desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari (administrazioan bere web-orrien % 45,9an aurreikusten da eta enpresen kasuan, % 21,4an).

Web-orrietara sartzeko hizkuntzak direla eta, euskara eta gaztelania nabarmentzen dira antzeko ehunekoekin, % 98,8 eta % 98,9, hurrenez hurren; orrien % 38,8k ingelesez nabigatzeko aukera ematen dute eta beste hizkuntza batzuetan, orrien % 21,1ek. Enpresen sektorean, euskarazko web-orrien eskuragarritasuna nabarmen baxuagoa da (% 42,5), bai eta, neurri txikiagoan, ingelesezkoena (% 30,6) eta beste hizkuntza batzuen (% 13,0) ere.

Hizkuntza erabilgarriak administrazio publikoko establezimenduetako Web orrietan (%). Euskal AE. 2021

	Web orria	Webeko hizkuntzak			
		Euskara	Gaztelania	Inglesa	Besteak
Guztira	99,5	98,8	98,9	38,8	21,1
Lurralde historikoa					
Araba/Álava	99,4	97,4	98,1	36,6	24,3
Bizkaia	99,7	98,7	99,6	42,2	15,0
Gipuzkoa	99,3	99,5	98,4	35,5	27,3
Jarduera-adarra					
Herri Administrazioa eta defentsa	99,5	97,5	98,8	50,5	31,3
Hezkuntza	100	100	97,6	17,3	1,7
Osasun jarduerak	100	100	100	1,7	1,2
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	100	99,7	99,6	48,2	25,6
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	97,9	97,4	99,6	66,0	41,8

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteare inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62